

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure negozioa mundura zabaltzea da gure nahia. Horregatik gure baliabide fisikoak, pertsonala, inteligentziazkoak... klasifikatu egingo ditugu eta gure artean ere lanak banatuko ditugu, dena errazago egiteko. Gure artean lan talde bat sortuko dugu, denok batera lan eginez ibiliko garena. Baina, lan horiek gure gustu eta abilezien arabera eratuko ditugu, dena errazago eta dinamikoago egiteko.

Telefono linea bat ere kontratatu egin beharko dugu, bezeroek deitu ahal izateko (kosturik gabeko deia).



Oso zaila egingo zaigu garraio lana, izan ere, adin txikikoak izanda gurasoen laguntza beharko dugu. Baina, zortea dugu, Iñakiren gurasoak furgoneta handi bat dutelako eta bestela ere DHL-rekin kontaktatu dugu edozein arazo edukitzen badugu Iñakiren furgonetarekin. Beraz, garraioaren kontua, Iñakik zainduko du, Josebak, berriz, furgoneta kargatu eta deskargatuko du eta Alvarok, Iñaki gidatuko du, berak esango dio nora joan, hau guztia funtsezko jardueretan garbiago azaltzen da.

Webgune bat sortuko dugu, gure negozioa internet bidez ere gehiago zabaltzeko. Horrela, guk uste dugu EKOZIR ezagunagoa egingo dela mundu osoan. Gainera, webgunearekin gure lagun batek lagunduko digu eta webgune seguru eta fidagarri bat sortuko dugu. Gure lagunak guk esandakoa idatziko du webgunean, hau da, guk esango diogu zer eta nola jarri, guk

informatikaren alorrean oso gutxi dakigulako. Webgunea alde batera utziz, guk sare sozialen bidez zerbait egin dezakegu EKOZIR-en alde, guk ditugun sare sozialetan EKOZIR negozioa zabalduko dugu, gure jarraitzaileak ezagutu dezaten.



Gure produktuak gutxinaka beti emango ditu aurrera pausuak, eta horretarako, ezinbestekoa zaigu bezeroen arreta. Horregatik, noizean behin inkesta bat pasatuko diegu bezeroei, haien iritzia kontuan izateko eta ondoren guk ondorioztatzeko. Kritika onak izan ala txarrak izan ez ditugu gaizki hartuko, beti hobetzeko intentzioarekin egingo dugulako lan.

Une oro esaten ari garen moduan, talde lana oso garrantzitsua da EKOZIR-en, oraingoan, giza baliabideekin lan egiteko. Izan ere, gure proiektua gauzatzeko ezin bestekoak dira, sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala. Hiru eginkizun hauek, hiru taldekideen artean banatuko ditugu, gaitasun komertzialaren alorra lñakik jorratuko du, lñakik pertsona asko ezagutzen baititu eta pertsonekin tratua izatea gustatzen zaio, oso hiztuna da, horregatik lñaki harremanetarako oso trebea izango da. Alvarok berriz, ezagutzarekin egingo du lan, bera izango dugu gidatuko gaituena eta berak esango ditugu zer komeni zaigun eta zer ez. Harremanetarako ere ona da, baina horretaz lñaki enkargatuko da. Josebak berriz, imajinazio oso handia du eta marraztea asko gustatzen zaio, horregatik, Josebak sormenarekin egingo du lan.

Behar ditugun mugikor eta aparatu elektronikoak lortzeko, gure lagun informatikoak lortuko dizkigu, (mugikorra adb. etxean dugun zahar bat erabili dezakegu hasteko). Bezeroentzako puntu fisikoa Uggasarekin alokatutako lokala izango da , ez badute telefono bidez gurekin kontaktatu nahi.

Josebaren amak udaletxean egiten du lan eta bere lankideetako bat abokatua da. Berak lagunduko digu edozein istilutan sartuz gero, handik ateratzen. Konfiantzako pertsona denez ez ditugu kosturik edukiko.

# EKOZIR